



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko martxoaren 27a

48. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—11-24/PRO-00003. Foru-lege proposamena, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailearen 1eko 8/2005 Foru Legearen 53. artikulua e) eta f) letrak aldatzen dituen. Geroa Bai, Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, EH Bildu Nafarroa eta Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioek aurkeztu dute (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-24/MOC-00041. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zeinu-hizkuntzak merezimenduetan puntuak eman ditzan kontratazio publikoan eta hala jaso dadin merezimenduei buruzko dekretu berrian. Daniel López Córdoba jaunak aurkeztu du (5. or.).

—11-24/MOC-00042. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita emakumeek kirola egitea sustatzeko ekintzak bultzatzen eta egiten jarrai dezan. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak aurkeztu du (6. or.).

—11-24/MOC-00043. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kirol egokitua dela eta Nafarroan dagoen eskaintzari buruz informatzeko web osatu eta gaurkotu bat taxutu dezan. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak aurkeztu du (7. or.).

—11-24/MOC-00044. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita toki-administrazioaren arloan dauzkagun eskumen historikoak defenda ditzan. Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztu du (8. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—11-24/POR-00120. Galdera, martxoaren 9an Xabiererra zihoazen erromesen aurkako erasoak direla-eta egindako larrialdi-deiari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (9. or.).

—11-24/POR-00121. Galdera, Eliza Katolikoan gertatutako sexu-erasoen biktimen errekonozimendurako eta erreparaziorako lanei buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (10. or.).

- 11-24/PES-00161. Galdera, Aragoiko Los Borjas I eguzki-parke fotovoltaikoari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/PES-00162. Galdera, hondakinen kudeaketari eta Scrap-i buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00163. Galdera, jakiteko ea noiz onetsi zen Nafarroako Lan Autonomoaren II. Plana. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00164. Galdera, nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueren gaineko aitorpena egin dutenei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (12. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- PER20230067. Nafarroako Parlamentuko lan egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea (13. or.).
- PER20230034. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako teknikari-ofiziala izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa (funtzionario-araubidekoa eta C mailakoa). Izendapena (14. or.).

---

**B saila:**  
**FORU-LEGE PROPOSAMENAK**

---

**11-24/PRO-00003. Foru-lege proposamena, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen 53. artikulua e) eta f) letrak aldatzen dituen**

*GEROA BAI, CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA, EH BILDU NAFARROA ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Geroa Bai, Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, EH Bildu Nafarroa eta Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioek Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen 53. artikulua e) eta f) letrak aldatzen dituen foru-lege proposamena aurkeztu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen 53. artikulua e) eta f) letrak aldatzen dituen foru-lege proposamena.

**2.** Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2024ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru-lege proposamena, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen 53. artikulua e) eta f) letrak aldatzen dituen**

ZIOEN AZALPENA

Martxoaren 14ko 383/2008 Errege Dekretuak, administrazio eta erakunde publikoen zerbitzura dauden suhiltzaileen alde erretiro-adinaren koefiziente murriztailea ezartzen duenak, erretiroa hartzeko adina aurreratze gaitzen ditu suhiltzaile moduan lan egiten duten pertsonak, "eskala, lan-kategoria eta espezialitate desberdinetan"

Martxoaren 9ko 8/2023 Foru Legearen bidez aldatu zen Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea. Besteak beste, 53. artikulua aldatu zen eta Suteen Prebentzio eta Itzaltze Zerbitzuko lanpostuen artean sartu ziren baso-suhiltzaile lanetan jarduten duten langileak. Urte asko dira langile horiek ordaintzen dutela erretiro adina murrizteko koefizientea aplikatzearen kostua, Administrazio eta erakunde publikoen zerbitzura dauden suhiltzaileen alde erretiro-adinaren koefiziente murriztailea ezartzen duen martxoaren 14ko 383/2008 Errege Dekretuak ezarritakoari jarraikiz; are gehiago, horietako batzuk erretiroa aurreratu dute.

Martxoaren 14ko 383/2008 Errege Dekretuak arautzen duen koefiziente murriztailea suhiltzaile-gidari laguntzaileei eta suhiltzaile-peoi laguntzaileei aplikatzeari buruz sorturiko interpretazio-arazoak ebazte aldera, beharrezkoa da uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen 53. artikulua aldatzea

–artikulu horretan lanpostuak eta haien eginkizunak zehazten dira–. Xede horrekin aurkezten da foru-lege proposamen hau, zeinaren bidez lanpostuak eta haien eginkizunak zehazten dituen 53. artikulua, arestian aipatu dena, aldatzen baita. Hona aldaketak:

– e) eta f) letrak honela geldituko dira:

“e) Suhiltzaile-gidari laguntzailea, D mailakoa. Esku-hartze operatiboko laguntza-eginkizunak dagozkio bere jarduketa-esparruan, goiko agintedunen zuzendaritzapean.

f) Suhiltzaile-peoi laguntzailea, D mailakoa. Esku-hartze operatiboko laguntza-eginkizunak dagozkio bere jarduketa-esparruan, goiko agintedunen zuzendaritzapean”.

– Bigarren apartatu bat gehitzen da, honako testuarekin:

“Aurreko apartatuan zehazturiko lanpostuak suhiltzaile lanbide-kategoriari dagozkiola ulertzen da, bere eskala eta espezialitate desberdinetan”.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen 53 artikulua e) eta f) letrak aldatzen dira. Hau da haien testu berria:

53. artikulua.

“e) Suhiltzaile-gidari laguntzailea, D mailakoa. Esku-hartze operatiboko laguntza-eginkizunak dagozkio bere jarduketa-esparruan, goiko agintedunen zuzendaritzapean.

f) Suhiltzaile-peoi laguntzailea, D mailakoa. Esku-hartze operatiboko laguntza-eginkizunak dagozkio bere jarduketa-esparruan, goiko agintedunen zuzendaritzapean”.

– 2. apartatu berria erantsi da, testu honekin:

“Aurreko apartatuan zehazturiko lanpostuak suhiltzaile lanbide-kategoriari dagozkiola ulertzen da, bere eskala eta espezialitate desberdinetan”.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**11-24/MOC-00041. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-  
tzen baita zeinu-hizkuntzak merezimenduetan puntuak eman ditzan  
kontratazio publikoan eta hala jaso dadin merezimenduei buruzko  
dekretu berrian**

*DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita zeinu-hizkuntzak merezimenduetan puntuak eman ditzan kontratazio publikoan eta hala jaso dadin merezimenduei buruzko dekretu berrian.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Daniel López Córdoba jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

**Zioen azalpena**

Gehienbat entzuten duten pertsonen osaturik dagoen gizartean bizi dira gorra edo entzuteko desgaitasuna duten pertsonak. Hori dela-eta, horien komunikazio-egintza batik bat ikusizkoa, keinuen bidezkoa eta espaziala da, zeinu-hizkuntza deitu ohi dena. Hizkuntza propioa dute, beste edozein hizkuntzak betetzen dituen ezaugarriak eta eginkizunak dituen gramatika batez berezia.

Espanian, XVI. mendekoa da zeinu-hizkuntza, monje beneditarrak orduan hasi baitziren zeinu-hizkuntza erabiltzen ume gorrei komunikatzen irakasteko.

400 urte baino gehiago eta gero, 2007an, urriaren 23ko 27/2007 Legearen bidez aitortu eta arautu zen zeinu-hizkuntza, Espainian gorren, entzuteko desgaitasuna duten pertsonen eta goritsuen hizkuntza gisa.

Pertsona horiek, halere, oraindik pairatzen dituzte irisgarritasun-oztopoak. Administrazio publikotik bermatu egin behar diegu zerbitzu publikoak haientzat irisgarri izateko eskubidea. Hortaz, honako hau proposatzen dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du zeinu-hizkuntzak merezimenduetan puntuak eman ditzan kontratazio publikoan eta hala jaso dadin merezimenduei buruzko dekretu berrian.

Iruñean, 2024ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

## **11-24/MOC-00042. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita emakumeek kirola egitea sustatzeko ekintzak bultzatzen eta egiten jarrai dezan**

### *MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita emakumeek kirola egitea sustatzeko ekintzak bultzatzen eta egiten jarrai dezan.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren jarraipena egitearen ardura Kultura, Kirol eta Turismo Batzordearena izanen da.

Zioen azalpena

Nahiz eta Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak hainbat ekintza egin dituen gure erkidegoan emakumeen kirola sustatzeko, batez ere kirolean erreferente femeninoak ikustarazteko, badirudi lortutako emaitzak ez direla guz-

tiz nahikoak Nafarroako kirol-jardueran ikusten den genero-arrakala murrizteko.

Izan ere, 2023an gizonezkoen 58.891 lizentzia eman ziren; hots, epe horretan foru-erkidegoan eman ziren emakumezkoen 27.186 lizentzien bikoitza baino gehiago. Emakumezko kirolarien kolektiboan gertatzen da hori, baina baita beste esparru batzuetan ere. 2023ko datuen arabera, Nafarroan gizonezkoen 4.941 lizentzia eman ziren guztira epaile eta teknikari izateko; aldiz, emakumezkoen 1.854 lizentzia eman ziren postu horietarako.

Datuak zorrotz aztertzen baditugu, berriz, ikus daiteke ezen, kirolean genero-arrakala umetan hasten bada ere, areagotu egiten dela senior mailan, hau da, helduaroan. Horrek frogatzen du gizonezkoek baino sarriago uzten diotela emakumezkoek kirola egiteari eta horren atzean hainbat arrazoi egon daiteke, besteak beste, dudarik gabe, familia-kontziliazioa.

Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak nafar guztiei bermatu behar die kirola egin ahal izatea, kirola ezinbesteko eskubidetzat jotzen baita nortasuna erabat garatzeko.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du emakumeek kirola egitea sustatzeko ekintzak bultzatzen eta egiten jarrai dezan, familia eta kirola kontziliatu ahal izateko ekintzak egiteaz gain.

Iruñean, 2024ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

## **11-24/MOC-00043. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita kirol egokitua dela-eta Nafarroan dagoen eskaintzari buruz informatzeko web osatu eta gaurkotu bat taxutu dezan**

### *MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita kirol egokitua dela-eta Nafarroan dagoen eskaintzari buruz informatzeko web osatu eta gaurkotu bat taxutu dezan.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Egitate bat da Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak kirol egokituari buruz ematen duen informazioa oso urria dela.

Zehazki, egokitutako bi kirol-ekitaldi antolatzeari buruzko eskuliburu bat baino ez dago Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua-  
ren webgunean: igeriketa eta kirol-defentsa. Adibide bitxi gisa, aipa dezakegu Bartzelonako Diputazioaren eskuliburu bat dagoela, "kirol-ekitaldi inklusiboak antolatzeko jardunbide egokiei" buruzkoa.

Desgaitasunen bat duten pertsonen, kirolen bat egin nahi baldin badute, beste oztopo bat izaten dute maiz: ibilbide gidaturik eza. Kirol Egokituaren Nafarroako Federazioaren webgunean ere ez da erraza halakorik aurkitzea.

Desgaitasuna duten pertsonen kirola egiten dutenean autonomia eta funtzionalitate handiago izanen lukete baldin eta halako tresna bat –webgunea, alegia– erraz baliatzeko modukoa balitz, Nafarroan kirol egokituko zer diziplina eskaintzen diren jakiteko informazio argi eta inklusiboa, bai eta desgaitasunaren arabera eskaintza hori zer kirolari-profilari zuzentzen zaion ere, emanen balitz. Kirol taldeen nahiz federazioen bidez kirol egokituaren eskaintzari buruzko informazioa ere emanen duen webgune bat.

Erabaki-proposamena:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du kirol egokitua dela-eta Nafarroan dagoen eskaintzari buruz informatzeko web osatu eta gaurkotu bat taxutzea bultzatzea dezan Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren bitartez, desgaitasunen bat duen edozein kirolarik kirola egin ahal izateko balioko duena.

Iruñean, 2024ko martxoaren 19an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

## **11-24/MOC-00044. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita toki-administrazioaren arloan dauzkagun eskumen historikoak defenda ditzan**

### **GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita toki-administrazioaren arloan dauzkagun eskumen historikoak defenda ditzan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinetek, Legebiltzarreko Eregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, rOsoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Lurralde Kohesiorako Batzordeak eginen du horren jarraipena.

Zioen azalpena

Estatuko gobernua, autonomia-erkidegoek eta toki-entitateek heldu diren hiru urteotan (2024, 2025 eta 2026) bete beharko duten egonkortasun-bidea behin ezagututa, argi geratu da ez direla inondik ere berdinak izanen administrazioek behin betikoz aplikatu beharko dituzten defizit-helburuak. Halatan, autonomia-erkidegoek, udalek eta gainontzeko entitateek egin beharko dute ahalegirik handiena.

Azkenik aplikatuko diren zenbatekoen arabera, estatuko administrazio publikoen defizit-helburua berriz ere % 3koa izanen da 2024an. Autonomia-erkidegoek % 0,1eko defizit-helburua bete behar-

ko dute, eta toki-entitateek, berriz, % 0,2ko superabita eduki beharko dute. Banaketa horrek autonomia-erkidegoen eta toki-entitateen aurrezpenean –batez ere, azken horien aurrezpenean– jartzen du enfasirik handiena. Eta horiek dira, hain zuzen ere, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak eta ahalegin handiena egiten dutenak gizarte-politika-eremuan inbertsioen arloan.

Aurrekontu-egonkortasunaren arloan izandako beste esperientzia batzuk ikusita, pentsatzekoa da defizit-helburu horiek ondorio larriak izan ditzaketela Nafarroako udaletan. Bidenabar esanda, Nafarroako Toki Sektore Publikoari buruzko 2021eko txostenaren arabera –Kontuen Ganberak egindako azkena, alegia–, entitate horien egoera ona zen oro har.

Txosten horren arabera, toki-entitateen finantza-egoerak hobera egin zuen pandemiaren ostean, eta, halatan, sektorearen aurrezki garbia 113 milioikoa izan zen, eta diruzaintzako gerakina, guztira, 335 milioikoa zen 2021aren amaieran. Urte hartan, zorra % 12 murriztu zen, 122 milioikoa izateraino.

Nafarroaren kasuan, bilakaera on horretaz gain, kontuan hartu beharko lirateke foru-erkidegoak toki administrazioaren arloan dauzkan eskumen historikoak. Autogobernu hori baliatu beharko litzateke, hain zuzen ere, defizit-bide horrek Nafarroako toki-entitateei eragitea ekiditeko.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du toki administrazioaren arloan dauzkagun eskumen historikoak aldeztu ditzan, Nafarroako toki-entitateek ez dezaten kalterik izan eta beren baliabideak eduki ahal izan ditzaten beren eskumen-esparruko politika publikoak garatzeko.

Iruñean, 2024ko martxoaren 21ean

Eleduna: Pablo Azcona Molinet



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-24/POR-00120. Galdera, martxoaren 9an Xabierrera zihoazen erromesen aurkako erasoak direla-eta egindako larrialdi-deiari buruzkoa***EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, martxoaren 9an Xabierrera zihoazen erromesen aurkako erasoak direla-eta egindako larrialdi-deiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikitako Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2024ko martxoaren 9ko gauean, larunbata, Xabierrera zihoan erromes-talde bat Irunberriko kiroldegian lo egiten ari zenean –haien artean adingabeak ere bazeuden–, frontoiko atea bortxatzen saiatu ziren herriko gazte batzuek eraso egin zieten: irain laidogarriak bota zizkieten –"espainiar zikinak" edo "faxistak", kasu–, eta bengalak eta harriak jaurti zizkieten leihoetara. Arduradunek gaueko 23:29an deitu zioten Foruzaingoari. Deiak bi minutu eta hamahiru segundo iraun zuen. Baina gazteen arduradunek Nafarroako Arartekolari aurkeztutako salaketan diotenez, Foruzaingorak erantzun zien ez zutela ezer ere eginen eta ez zirela gertakarien lekura hurbilduko, izan zezatela pazientzia eta erasotzaileei agortuko zitzaizkiela halako batean petardoak. Gazteek irainak eta eraso-saiakerak jasan behar izan zituzten gaueko ia ordu biak arte, halako moduan non, salaketaren arabera, izu eta zaurgarritasun egoera bizi izan baitzuten.

Gertakari horiek ikusita, Foruzaingoa zergatik ez zen gertakariak izan ziren lekura joan?

Iruñean, 2024ko martxoaren 19an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

## 11-24/POR-00121. Galdera, Eliza Katolikoan gertatutako sexu-erasoen biktimen errekonozimendurako eta erreparaziorako lanei buruzkoa

*MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, Eliza Katolikoan gertatutako sexu-erasoen biktimen errekonozimendurako eta erreparaziorako lanei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garridok, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Departamentuak zer balorazio egiten du Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan gertatutako sexu-abusuen biktimei errekonozimendua adierazteko 24/2022 Foru Legearen bidez sortu zen Errekonozimendurako Batzordeak 2023an egindako lanak direla-eta? Aurten nola jarraituko da egiten biktimei egindako kaltearen errekonozimendurako eta erreparaziorako lan hori?

Iruñean, 2024ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: José Miguel Garrido Sola

## 11-24/PES-00161. Galdera, Aragoiko Los Borjas I eguzki-parke fotovoltai-koari buruzkoa

*FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Aragoiko Los Borjas I eguzki-parke fotovoltai-koari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita-ko Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2024ko otsailaren 8an Aragoiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez jendarean jarri zen administrazio-baimena eskatu dela Aragoi eguzki-parke fotovoltai-ko bat eraikitze-ko (Los Borjas 1). Parke horrek 26,32 hektarea hartuko lituzke, Ablitasen, Kontserbazio Bereziko Eremu baten ondoan. Zer afekzio izan dezake parke horrek eta zer egingen du Nafarroako Gobernu-ko Ingurumen Departamentuak hori dela-eta?

Iruñean, 2024ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

## 11-24/PES-00162. Galdera, hondakinen kudeaketari eta Scrap-i buruzkoa

*FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, hondakinen kudeaketari eta Scrap-i buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako

ko Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko abenduaren 27ko 1055/2022 Errege-dekretuak dio Scrap-ek bildu eta ordainduko dituela atxikitako ontziak. Ezinezkoa da ontziak bereiztea Scrsap bati edo beste bati atxikita egotearen arabera. Badakigu, gainera, kendu eginen dela puntu berdearen anagrama, eta hori zen, hain zuzen ere, ontziak puntu berdea ordaindu izanaren adierazgarria.

Hortaz, nola bereiziko da zer ontzik ordaintzen duen eta zeinek ez, baldin eta anagramarik ez badago? Scrap-ek biltzen dituen eta, haiek diotenez, puntu berdea ordaintzen ez duten tonak, nola jasoko dira hitzarmenean? Nafarroan Scrap baimendu bakar bat egotea baimenduko al da?

Iruñean, 2024ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

## 11-24/PES-00163. Galdera, jakiteko ea noiz onetsi zen Nafarroako Lan Autonomoaren II. Plana

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, jakiteko ea noiz onetsi zen Nafarroako Lan Autonomoaren II. Plana.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Noiz onetsi zen Lan Autonomoaren Nafarroako II. Plana?

Iruñean, 2024ko martxoaren 19an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## 11-24/PES-00164. Galdera, nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueren gaineko aitortpena egin dutenei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueren gaineko aitortpena egin dutenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

1. 2015etik 2022ra bitarte, zenbat subjektu pasibok deklaratu zituzten nekazaritzako edo/eta abeltzaintzako jarduerengatiko diru-sarrerak enpresen edo lanbidedunen jarduerengatiko errenten barruan?

2. Urte horietan beretan, horietako zenbatek ez zuten deklaratu lan-etekinengatiko diru-sarrerarik?

3. 2015etik 2022ra bitarte, zein izan zen enpresen edo lanbidedunen jarduerengatiko errenten barruan nekazaritzako edo/eta abeltzaintzako jarduerengatiko diru-sarrerak deklaratzeko dituzten subjektu pasibok zerga-oinarrian deklaratutako batez besteko errentaren zenbatekoa?

4. 2021eko eta 2022ko ekitaldietan, zenbat subjektu pasibok deklaratu zituzten enpresen edo lanbidedunen jarduerengatiko errenten barruan nekazaritzako edo/eta abeltzaintzako jarduerengatiko diru-sarrerak zuzeneko zenbatespen erraztuko sistemaren bidez?

5. 2021eko eta 2022ko ekitaldietan, zenbat subjektu pasibok deklaratu zituzten enpresen edo lanbidedunen jarduerengatiko errenten barruan nekazaritzako edo/eta abeltzaintzako jarduerengatiko diru-sarrerak zuzeneko zenbatespen bereziko sistemaren bidez?

6. 2021eko eta 2022ko ekitaldietan, zein izan zen enpresen edo lanbidedunen jarduerengatiko errenten barruan nekazaritzako edo/eta abeltzaintzako jarduerengatiko diru-sarrerak deklaratzeko dituzten subjektu pasibok zerga-oinarrian deklaratutako batez besteko errentaren zenbatekoa, deklarazioa bai zuzeneko zenbatespen erraztuen bai zuzeneko zenbatespen bereziaren bidez egiten dutenen kasuan?

Iruñean, 2024ko martxoaren 21ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **PER20230067. Nafarroako Parlamentuko lan egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak 2024ko martxoaren 20an idazki bat aurkeztu du, non eskatzen baitu 2024ko apirilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean goizeko lanaldia ezartzea.

Kontuan izanik aipatu lan-astean ez dagoela aurreikusita arratsaldeko parlamentu-jarduerarik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikularekin bat, ERABAKITZEN DA:

**1.** Mahaiaren 2023ko abenduaren 18ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia aldatzea;

halatan, lanaldia goizekoa izanen da 2024ko apirilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean, betiere zerbitzuen beharriaz ahalbidetzen badute.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren arreta presentzialeko ordutegia, Mahaiaren 2024ko otsailaren 19ko erabakiaren bidez onetsitakoa, aldatzea; halatan, 2024ko apirilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean, 09:00etatik 14:30era bitarte egonen da zabalik.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **PER20230034. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako teknikari-ofiziala izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa (funtzionario-araubidekoa eta C mailakoa)**

### **Izendapena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Bukatu da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako teknikari-ofiziala izateko lanpostu huts bat –funtzionario-araubidekoa eta C mailakoa— betetzeko oposizioa, zeinaren deialdia 2023ko ekainaren 23ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta 2023ko ekainaren 30eko 137. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an hartutako erabakiaren bidez, onetsi zuen Mikel Ozcoidi Latorre jaunaren alde epaimahai kalifikatzaileak egindako izendapen-proposamena, zeina 2024ko martxoaren 18ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta 2024ko martxoaren 18ko 58. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Zerbitzu Orokorretako buruak txostena egin du interesdunak deialdiko 8.3 oinarrian adierazita dagoen dokumentazio guztia behar den epean eta moduan aurkezteari buruz. Hartara, txosten hori ikusita eta deialdiko 9. oinarrian ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Nafarroako Parlamentuko funtzionario izendatzea, sistema informatikoetako teknikari-ofizial gisa (C maila), teknikari-ofizialen kidegoan, jarraian aipatzen den izangaia:

- Mikel Ozcoidi Latorre jauna

**2.** Ezartzea izendatuak hilabeteko epea izanen duela, izendapena jakinarazten zaionetik aitzina, bere karguaren jabetza hartzeko.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



